

## HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

Donostiako haur, nerabe eta gazteei euren bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragingo duten sustapen-politikak garatzeko orduan, Gazteriak Sailak lehentasunezko ikusten du haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu behar dela. Eta horretarako, Donostiako Udaleko beste sail eta erakundeekin eta haur, nerabe eta gazteen alorrean diharduten beste eragileekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea lehenesten da.

Era berean, Gazteria Sailak ezinbesteko ikusten du Donostiako haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik subjektu aktibo izatera pasa behar dutela.

Honela, 2025-27 Gazteriako Plan estrategikoaren erronketako bat, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartzea da. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politikak definitzerako garaian euren beharrak, nahiak eta interesak ezagutzea ezinbesteko baldintza da. Are gehiago, haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik subjektu aktibo izatera igaro beharra identifikatu da eta bide honetan pausuak eman diren arren, bide honetan sakondu eta bide berriak aztertzea ezinbesteko ikusi da.

Testuinguru honetan, zentralitate handia hartu du eta lehenetsi beharreko aspektu gisa detektatu da haur, nerabe eta gazteen parte hartzea eta horregatik, alor honi lan-ildo propioa eskaini zaio. Besteak beste, auzo-komunitatean, hiri-antolamenduan eta udal-kudeaketan haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko ekintzak proposatu dira, Donostia eurentzako hiri ere izan dadin.

Parte hartzea sustatu behar da, baina subjektu herritar baten ikuspegitik, hau da, kontuan hartuta eskubideen jabe dela eta, konpromisoan eta erantzukizunean oinarrituta lan eginez, betebeharrak ere badituela.

Alde horretatik, haurrek eta nerabeek parte hartzeko organo eta gune autonomoak artikulatu eta sortu behar dira, biztanle talde horri aukerak emango diotenak herritartasun aktiboa iraunkortasunez garatzeko, betiere euren ikuspegietatik, lehentasunetatik, lan egiteko moduetatik eta antolamendutik abiatuta, horrela sentitu eta izango baitira aldaketarako eragile hiriko dinamiketan, beren etorkizuna eta Donostiarena eraikitzen parte hartuz.

2023-24 ikasturtetik, azken 3 ikasturteetan zehar, Ekialde barrutian “Auzoko ahotsak” parte hartze organoa martxan egon da. Bertan Altza, Bidebieta eta Intxaurrenondoko ikastetxeek parte hartu dute, haien auzoa aztertzen eta gai zehatzen inguruko proposamenak landu eta proiektuak aurrera eramaten.

Esperientzia horretan oinarrituta eta bertan ikasitakoaz baliatuz, parte hartze organo iraunkor bat gauzatu nahi da hiriko beste auzoetara zabalduko dena, modu honetara hiriko haur eta nerabe guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

### **1. Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak. / Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa**

Haur eta nerabeek parte hartzeko udal-kanal arauturik ez izatea.

*La falta de un canal municipal regulado de participación para las niñas, niños y adolescentes.*

### **2. Arau hori onestea beharrezko eta egoki den. / Necesidad y oportunidad de su aprobación**

Haurren eta nerabeen babesaren arloan indarrean dauden araudiak betetzea, hain zuzen ere, haur eta nerabeen oinarritzko eskubide den parte hartzeko eskubidea bermatzea.

*Cumplir con las normativas vigentes en materia de protección de niñas, niños y adolescentes, concretamente, garantizar el derecho fundamental de participación de los niños, niñas y adolescentes.*

### **3. Arauaren helburuak. / Los objetivos de la norma**

Haurren eta nerabeen parte hartzeko organoaren egitura eta funtzionamendu orokorra arautzea.

*Regular la estructura y funcionamiento general del órgano de participación de niños/as y adolescentes.*

### **4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak. / Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

Araudi propio bat egiteko eta onartzeko beharra baloratu da, lehendik dagoen eta egokitzeko moduko erregelamendurik ez dagoelako.

*Se ha valorado la necesidad de elaborar y aprobar un reglamento propio, por ausencia de un reglamento ya existente el cual adaptar.*